

VLAANDEREN BASKENLAND



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

#FlenBasque

VLAANDEREN
BASKENLAND

Flandriak eta Euskadik identitate kolektiboaren eta beren historia, kultura eta hizkuntza propioaren zentzu sakona ez ezik, europar integrazioarekiko konpromisoa eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko begirada bateratua partekatzen dituzte. Bi gobernuen arteko harremana eta interes komuneko eremuetan lankidetza aspalditik datozen arren, 2021. urtean Jean Jambon ministro-presidenteak eta Iñigo Urkullu lehendakariak sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandumak bultzada berria eman zion lurraldeen arteko loturari.

Kulturak paper garrantzitsua jokatu du beti harreman horretan, eta memorandumean eremu honetan kooperazioa indartu eta lankidetza proiektuak sustatzeko konpromisoa hartu zuten bi aldeek. Proiektu hauek helburu bikoitza dute: batetik, kultur eragileak elkartzea, esperimentatzea eta elkarrengandik ikastea. Bestetik, bi lurralteetako sorkuntzaren kalitatea eta izaera berritzalea plazaratzeko kultur proposamen zehatzak lankidetzan garatzea.

Eskuartean duzun programa konpromiso horren isla da, azken urteetan landutako harremanaren emaitza. Baino emaitzarekin batera, egin dugun ibilbidea azpimarratu nahiko nuke, epe luzera begirako harreman iraunkor eta onuragarriak ezartzeko gakoetako bat delako. Eta hori da, azken finean, kultur konexio hauekin bilatzen duguna.

Abiapuntu bezala, flandriar eta euskal kultura eta sorkuntzaren ekosistema ezagutu eta eragileen arteko konexioak eragiteko, Euskadira eta Flandriara lan-bisita bana antolatu genituen 2021 eta 2022an Lehendakaritza, Flandriako Kantzilergoa eta Kultura Saila eta Flanders Arts Institute-ekin elkarlanean. 2023an eta 2024an bi lurraldeen arteko kultur-lankidetza sustatzeko deialdi bana atera zuten Eusko Jaurlaritzak eta Flandriako gobernuak. Aukeratutako proiektu gehienak lan-bisita haietan ereindakoaren fruitua dira.

Ondorengo orrieta jasotzen dira Flandria-Euskadi epe luzeko lankidetza programaren baitan orain artean sortutako proiektu eta elkartrukeak. Etorkizunean aurrera, aliantzak egonkortu eta proiektu berriak sustatzeko ahaleginean lan egiten jarraitu asmo dugu.

Flandes y Euskadi comparten no sólo un profundo sentido de la identidad colectiva y de su propia historia, cultura y lengua, sino también un compromiso con la integración europea y una mirada común para afrontar los retos del futuro. Aunque la relación entre ambos gobiernos y la colaboración en ámbitos de interés común viene de tiempo atrás, en 2021 el Memorando de Entendimiento firmado por el ministro-presidente, Jean Jambon, y el lehendakari, Iñigo Urkullu, dio un nuevo impulso a esta conexión interterritorial.

La cultura siempre ha jugado un papel importante en esta relación y en el memorando ambas partes se comprometieron a reforzar la cooperación en este ámbito y a promover proyectos de cooperación. Estos proyectos tienen un doble objetivo. Por un lado, unir a los y a las agentes culturales, experimentar y aprender unos/as de otros/as. Por otro lado, desarrollar en colaboración propuestas culturales concretas para hacer pública la calidad y el carácter innovador de la creación de ambos territorios.

El programa que tienes entre manos es reflejo de ese compromiso, fruto de la relación que se ha trabajado durante los últimos años. Pero junto al resultado, me gustaría destacar el recorrido que hemos hecho, ya que es una de las claves para establecer relaciones sostenibles y favorables a largo plazo. Y eso es, al fin y al cabo, lo que buscamos con estas conexiones culturales.

Como punto de partida, en 2021 y 2022 se organizaron visitas de trabajo a Euskadi y Flandes para conocer el ecosistema cultural y creativo flamenco y vasco, así como para establecer conexiones entre los diferentes agentes, en colaboración con Lehendakaritza, la Cancillería y el Departamento de Cultura de Flandes y el Flanders Arts Institute. En 2023 y 2024 el Gobierno Vasco y el Gobierno de Flandes pusieron en marcha varias convocatorias para fomentar la cooperación cultural entre ambos territorios. La mayoría de los proyectos seleccionados son fruto de lo sembrado en aquellas visitas de trabajo.

Estas páginas recogen los proyectos que hasta este momento han surgido en el marco del programa Flandes-Euskadi. Una cooperación con vocación de continuidad, en el marco de la cual seguiremos trabajando en consolidar alianzas y estimular nuevos proyectos.

Irene Larraza
Zuzendaria / Directora
Etxepare Euskal Institutua



Dance and Community

2023.05.01 - 2023.11.30

Dantzaz Ultima vez Etxepare Euskal Institutua

Molenbeek eta Erreenteria, Erreenteria eta Molenbeek. Bata Bruselako eskualdean, bestea Gipuzkoan. 1000 kilometrok banatzen dituzten arren asko dute komunean: kultura aniztasuna, gizarte multietnikoa, errealitate sozioeconómico postindustriala. Eta horrekin batera, komunitatean sustraitutako tokiko eta sektore arteko ekimen ugari. Are gehiago, biek dute zentro koreográfico: Ultima Vez Molenbeek-en eta Dantzaz-ek Erreenterian. Bi hirien arteko antzekotasunak oinarri hartuta, 'Dance and Community' (Danza eta Komunitatea) proiektua sortu dute, praktika parte-hartzaileetan oinarritutako elkartruke proiektua. Molenbeeken eta Erreenterian metodologíak landu ostean, argitalpen bat egingo dute prozesu hauek eta lortutako emaitzak beste kultur- eta gizarte- erakundeekin partekatzeko.

Wim Vandekeybus coreógrafo, director y cineasta Wim Vandekeybus, Ultima Vez, Sint-Jans-Molenbeek-en egoitza duen nazionaleko danza konpaina da. Bestalde, Erreenterian egoitza duen Dantzaz Euskal Herriko danza-sektorearen profesionalizazioaren alde egiten du lan, baita bitartekaritzan eta proiektu parte-hartzaile eta berritzairetan ere.

Molenbeek y Erreenteria, Erreenteria y Molenbeek. Una en la región de Bruselas, otra en Gipuzkoa. Aunque 1000 kilómetros las separan, tienen mucho en común: la multiculturalidad, la población multiétnica, la realidad socioeconómica post-industrial. Y con ello, un buen número de iniciativas locales e intersectoriales arraigadas en la comunidad. Además, ambas cuentan con un centro coreográfico: Ultima Vez en Molenbeek y Dantzaz en Erreenteria. A partir de las similitudes entre ambas ciudades han creado el proyecto 'Dance and Community' (Danza y Comunidad), un proyecto de intercambio basado en prácticas participativas. Tras trabajar metodologías en Molenbeek y Erreenteria, realizarán una publicación para compartir estos procesos y los resultados obtenidos con otras entidades culturales y sociales.

Fundado por el coreógrafo, director y cineasta Wim Vandekeybus, Ultima Vez es una compañía internacional de danza con sede en Sint-Jans-Molenbeek. Por su parte, Dantzaz, con sede en Erreenteria, trabaja tanto en la profesionalización del sector de la danza en el País Vasco como en la mediación y en proyectos participativos e innovadores.



Binded Bodies

2022.05.13-2024

Artekale Zirkozurre Korrala sormen gunea Circuscentrum Circlabo
Ell Circo d'ell Fuego Etxepare Euskal Institutua

'Binded Bodies'-en Artekale - Euskal Herriko Kale Arteen Elkarteak - eta Circuscentrumek - Zirkoko Arteen Zentro Flamenkoa - indarrak batu dituzte Euskal Herriaren eta Flandriaren artean lotura profesionalak sortzeko, sinergia potentzialak errazteko eta ezagutzak trukatzeko. "Binded Bodies" gorputzak erdigunea diren praktika artistikoetan zentratzen da. Honek, Euskal Herriko Zirkozurre eta Circlabo eta Ell Circo D'ell Fuego konpainiekin batera, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko truke bat ezartzeko konpromisoa hartzen du, Flandriako eta Euskal Herriko konpainiek beren sorkuntza-prozesuak landu eta egin ditzaten, eta, aldi berean, lanbide-sare berri bat eraikitzen. Proiektua hiru ekimenen inguruan egituratzen da:

En 'Binded Bodies', Artekale – Asociación de Artes de Calle del País Vasco –, y Circuscentrum, – Centro Flamenco de Artes Circenses –, unen sus fuerzas para crear vínculos profesionales entre el País Vasco y Flandes, facilitar potenciales sinergias e intercambiar conocimientos. 'Binded Bodies' se centra en prácticas artísticas en las que el cuerpo ocupa un lugar central. Junto con Zirkozurre, por parte vasca, y Circlabo y Ell Circo D'ell Fuego, por parte flamenca, esta iniciativa se compromete a establecer un intercambio transfronterizo e interregional que proporcione un espacio para que compañías flamencas y vascas trabajen y realicen sus procesos de creación, al tiempo que construyen una nueva red profesional. El proyecto se vertebría en torno a tres iniciativas:

WELKOM

Flandriako eta Euskal Herriko kale arteen inguruko topaketa profesionala da, eta elkar ezagutza sortzea du helburu.

Encuentro profesional de artes de calle de Flandes y País Vasco con el fin de impulsar el conocimiento mutuo.

2023.05.13 - 2023.05.14

Circlabo (Leuven)

2023.05.19 - 2023.05.21

Umore Azoka (Leioa)

STEUN/EUSKARRI

Astebete eta bi aste arteko lau sorkuntza egonaldik osatzen dute egitasmo hau. Egonaldia egingo duten konpainiak deialdi bidez aukeratuko dira.

Esta iniciativa la componen cuatro residencias de creación de entre una y dos semanas. Las compañías serán seleccionadas mediante convocatoria pública.

2023.11.14-22

NiMú konpainaaren erresidentzia. / Residencia de la compañía NiMú, Circlabo egoitza (Leuven).

2023.10.27 - 2023.11.05

Alicia Rechac-en erresidentzia. / Residencia de Alicia Rechac. Ell Circo D'Ell Fuego (Amberes)

2023.12.15-22

Sfenson konpainaaren erresidentzia. / Residencia de la compañía Sfenson, Korrala Sormen Gunea (Izurtza)

2024.04.01-07

Gadechtegang konpainaaren erresidentzia. / Residencia de la compañía Gadechtegang (Zirkozurre bizilekuak, Bilbo)

JOB SHADOWING

Bi aldeetako eragileek euren taldeko bi pertsona bidaliko dituzte astebetez beste lurraldeko egituretan elkarbizitza egiteko.

Encuentro profesional de artes de calle de Flandes y País Vasco con el fin de impulsar el conocimiento mutuo.

2024.04.08-14

Saioa Liribarren eta Cesar López euskal artistak Anbereseko Mad Festivalean. / Sesión de los artistas vascos Liribarren y Cesar López en Mad Festival de Amberes.

2024.05.16-18

Nathalie Vandenabeele artista flamenka Leioako Umore Azokan. / Actuación de la artista flamenca Nathalie Vandenabeele en Umore Azoka de Leioa.



Rituals for the Living Present

2023.08-09 / 2024.08-09


Tabakalera Morpho Etxepare Euskal Institutua Gala Knörr Sara Ayesa

"Rituals for the Living Present" MORPHOk (Anberes) eta Tabakalerak (Donostia) bultzatutako aldebiko arte-egoitzen programa bat da, erritualek arte-iturri eta komunitate gisa duten esanahi garaikidea aztertzen duena. Truke horretan, erritualen biziraupenari, hainbat gizartetan duten zereginari eta gaur egun horiek berrasmatzeko moduari buruz hausnartzera gonbidatzen dituzte artistak. Deialdi ireki baten bidez, bi erakundeek Euskal Herriko eta Flandriako artista bana aukeratzen dute urtero, hiru hilabeteko lan-egoitza egiteko.

Orain arteko deialdietan hautatuak izan diren euskal artistak Gala Knörr eta Sara Ayesa izan dira, 2023 eta 2024ko deialdietan hurrenez hurren. Biek Anbereseko MORPHO Arte garaikidearen gunean egingo dute sorkuntza egonaldia.

'Rituals for the Living Present' ('Rituales para un presente vivo') es un programa bilateral de residencias artísticas impulsado por MORPHO (Amberes) y Tabakalera (San Sebastián) que explora el significado contemporáneo de los rituales como fuente de arte y comunidades. En este intercambio invitan a artistas a reflexionar sobre la supervivencia de los rituales, su papel en diferentes sociedades y cómo pueden reinventarse en la actualidad. A través de una convocatoria abierta las dos entidades seleccionarán cada año un/a artista del País Vasco y de Flandes respectivamente para una residencia de trabajo de tres meses.

Las creadoras seleccionadas en la convocatoria a día de hoy han sido Gala Knörr y Sara Ayesa, a través de las convocatorias de 2023 y 2024 respectivamente. Ambas artistas llevarán a cabo una residencia artística de tres meses en el Centro de Arte Contemporáneo MORPHO de Amberes.



Vertical Visions

2023.09 - 2024.07

La Glo Zirko Dantza Cirkus in Beweging Etxepare Euskal Institutua Kalealdia

'Vertical Visions' La Glo Zirko Dantza eta Cirkus in Beweging dantza bertikaleko konpainien arteko nazioarteko lankidetza-proiektu pedagogikoa eta ikerketa proiektua da. Lehenbiziko fasean ezagutza teknikoa eta lan-metodología partekatzean eta elkar-ezagutzan jarriko dute fokua. Ostean ikerketa laborategiak egingo dituzte zuzeneko ikusizko arteen, musikaren eta dantza bertikalaren arteko kolaborazio bideak aztertzeko. Amaitzeko, proiektua jendaurrean aurkeztuko da, zirkua, musika eta ilustrazioa uztartuko dituen ikuskizun batean.

"Vertical Visions" es un proyecto de investigación y cooperación pedagógica internacional entre las compañías de danza vertical La Glo Zirko Dantza y Cirkus in Beweging. En la primera fase pondrán el foco en compartir conocimiento técnico, metodología de trabajo y conocimiento mutuo. Posteriormente se llevarán a cabo laboratorios de investigación para analizar las posibles formas de colaboración entre las artes visuales en vivo, la música y la danza vertical. Para terminar, el proyecto se presentará al público en un espectáculo que combinará circo, música e ilustración.

2023.09

Sorkuntza egonaldia / Estancia creativa
CIRKLABO (Leuven)

2023.10

Sorkuntza egonaldia / Estancia creativa
Azkuna Zentroan (Bilbo)

2024.05.06-12

Sorkuntza egonaldia eta emanaldia / Estancia creativa y actuación
(Flandria / Flandes)

2024.07

Sorkuntza egonaldia eta emanaldia / Estancia creativa y actuación
Kalealdia (Bilbo)



Youyou eta Irrintzia

2023.09 - 2023.11

Aiaraldea Ekintzen Faktoria Newpolyphonies Etxepare Euskal Institutua

'YouYou & Irrintzia, ahots praktika tradizionalaren begirada berri bat' proiektua Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren eta Bruselan egoitza duen YouYou Group ahots taldearen arteko lankidetza proiektua da. YouYou Group-ek 'youyou' izeneko Afrika eta Ekiade Hurbileko ahots-teknikaren inguruko praktika artistikoa garatu du. Taldea 2014an sortu zen, eta orain adin eta jatorri ezberdinak 30 emakumek osatzen dute. Euskal Herrian bada antzeko ahots-tradizio bat, irrintzia. Egitasmo hau tokiko komunitateei konektatuta dauden eta kultur praktikak sustatu eta garatzen dituzten bi eragileren arteko trukea da. Biek ahozko ondarea berpiztu nahi dute, tradizio berezi batean sakonki errotua baina testuinguru berri batera (landakoa, hirikoa, artistikoa) aldatua. Helburu honi jarraituz, ahots eta sormen laborategiak, sortzaileen arteko topaketak, lantegiak, mahai-inguru bat eta 'Komunikatea' performancea egingo dituzte, besteak beste. Begirada garaikide batetik, praktika tradizional folkloriko hauei esanahi berriak bilatuko dizkiote.

El proyecto 'YouYou & Irrintzia, una nueva mirada a la práctica vocal tradicional' es un proyecto de colaboración entre Aiaraldea Ekintzen Faktoria y el grupo vocal YouYou Group, con sede en Bruselas. YouYou Group ha desarrollado una práctica artística sobre la técnica vocal en África y Oriente Próximo llamada "youyou". El grupo nació en 2014 y ahora está formado por 30 mujeres de diferentes edades y procedencias. En el País Vasco existe una tradición vocal similar, el irrintzi. Este proyecto es un intercambio entre dos agentes conectados a las comunidades locales y que promueven y desarrollan prácticas culturales. Ambos buscan revivir el legado oral, profundamente arraigado en una tradición singular pero transformado a un nuevo contexto (rural, urbano, artístico). Para cumplir este objetivo, realizarán laboratorios vocales y creativos, talleres, encuentros entre artistas, una mesa redonda y la performance 'Komunikatea'. Así, desde una mirada contemporánea, buscarán nuevos significados a estas prácticas tradicionales folclóricas.

2023.09

YouYou Group-en egonaldia / Estancia de YouYou Group
(Laudio)

2023.10

YouYou Group-en egonaldia / Estancia de YouYou Group
(Laudio)

2023.11

Irrintziaren inguruko jarduerak / Actividades en torno al irrintzi
(Brusela)

The 14th edition of the international poetry festival Transpoesie is back in full force with fresh voices, focusing on surrealism.

Full programm:
transpoesie.eu

Surrealism

Save the date
26-28/09



Transpoesie

2023.09 - 10

Eunic Bruselas Etxepare Euskal Institutua Lizar Begoña Arkaitz Cano

Transpoesie, Bruselas, urtero irailaren 26an, Hizkuntzen eta Hizkuntza Anitzasunaren Europako Eguna inguruan egiten den literatura jaialdia da. 2011. urteaz gerontik, jaialdiak jarduera ugari antolatzen ditu irailean eta urrian, Europako aberastasun eta anitzasun literarioa aurkeztu eta balioesteko. Bere berezitasunetako bat da Europa osoko egileen olerki sorta bat garraio publikoan erakusten dela jatorrizko hizkuntzetan, frantzesera eta nederlanderara itzulita. 2023an Lizar Begoña idazleak hartu zuen parte. 2024an Arkaitz Cano izan da euskal poeta gonbidatua.

Transpoesie es un festival literario que tiene lugar en Bruselas en torno al Día Europeo de las Lenguas y la Diversidad Lingüística, que se celebra cada año el 26 de septiembre. Desde el año 2011, este festival organiza numerosas actividades los meses de septiembre y octubre para presentar y poner en valor la riqueza y la diversidad literaria de Europa. Una de sus particularidades es que una selección de poemas de autores/as de toda Europa se exponen en el transporte público en sus lenguas originales, con traducciones al francés y al neerlandés. En 2023 participó en el festival la escritora Lizar Begoña. En la edición de 2024 el poeta invitado ha sido Arkaitz Cano.



Crossing Voices

2023.10.06 - 2023.11.22

Akartia Trio Ward De Vleeschhouwer Etxepare Euskal Institutua

'Crossing Voices' egitasmoak euskal eta flandriar musika garaikidea elkartuko ditu datozen hilabeteetan. Akartia Trio-k kooperazio proiektu bat garatu du Euskal Herriko eta Flandriako hainbat konpositorererekin batera. Lankidetza horretatik bi estreinaldi jasotzen dituen kontzertu-programa sortu da. Bata, Ward De Vleeschhouweren konpositore flandriarraren eskutik, eta bestea Mikel Chamizo euskal konpositoreari esker. Bestalde, De Vleeschhouwerrek soundpainting tайлerra eta hitzaldi bat emango ditu.

El proyecto 'Crossing Voices' unirá en los próximos meses la música contemporánea vasca y flamenca. Akartia Trio ha desarrollado un proyecto de cooperación junto a varios compositores vascos y flamencos. De esta colaboración ha surgido un programa de conciertos que recoge dos estrenos. Uno, por el compositor flamenco de Ward De Vleeschhouwer, y otro, por el compositor vasco Mikel Chamizo. Por otro lado, De Vleeschhouwer impartirá un taller de soundpainting y una charla.

2023.10.06

Soundpainting lantegia eta hitzaldia Ward De Vleeschhouwerekin
Taller de soundpainting y charla de Ward De Vleeschhouwerekin

2023.11.22

Musikagileak zirkuitua: Akartia trio / Circuito Musikagileak: Akartia Trio



Antwerpen Bilbao: Itzulera guztiak!

2023.11.04 - 2023.11.13

ANTespacio LLS Paleis Etxepare Euskal Institutua

Flandria eta Euskadiren arteko truke artistikoa sustatzen duen proiektu honetan, bi asteren buruan, LLS Paleis eta ANTespacio txandakatuko dira gonbidatu eta anfitrioi gisa. Taxio Ardanaz (1978, Iruñea), Justine Grillet (1998, Anberes), Amaia Molinet (1988, Nafarroa), Leire Muñoz (1983, Bilbo) eta Rik Van Gorp (2000, Turnhout) artistek, bakoitzaren obraren zentzuari buruzko ekitaldia sortuko dute Anberesen eta Bilbon. ANTespacio eta LLS Paleis profesionaltasunak improbisazioarekin bat egiten duen espazioa eraikitzen ari dira.

En este proyecto que promueve el intercambio artístico entre Flandes y Euskadi, durante dos semanas, se alternarán como invitado y anfitrión LLS Paleis y ANTespacio. Taxio Ardanaz (1978, Pamplona), Justine Grillet (1998, Amberes), Amaia Molinet (1988, Navarra), Leire Muñoz (1983, Bilbao) y Rik Van Gorp (2000, Turnhout), crearán un acto experimental en Amberes y Bilbao sobre el sentido de la obra de cada artista. ANTespacio y LLS Paleis están construyendo un espacio donde la profesionalidad se une a la improvisación.

2023.11.02-04

Elkartruke artistikoa / Intercambio artístico
ANTespacio (Bilbo)

2023.11.09-11

Elkartruke artistikoa / Intercambio artístico
LL Paleis (Anberes)



Korrontzi Dantzan in Flanders

2024.05.17 - 2024.05.19

Korrontzi **Muziekcentrum Dranouter (MCD)** **Etxepare Euskal Institutua**

‘Korrontzi Dantzan in Flanders’ proiektuak euskal eta flandriar musika eta dantza uztartzen ditu. Batetik, Korrontzik euskal musika eta dantza tradizionala eramango ditu Flandriara. Bestetik, Muziekcentrum Dranouter-eko dantzariekin koreografia berriak sortu eta bere ikuskizunetan txertatuko ditu.

El proyecto “Korrontzi Dantzan in Flanders” combina música y danza vasca y flamenca. Por un lado, Korrontzi llevará a Flandes música vasca y danza tradicional. Por otro lado, creará nuevas coreografías con los bailarines del Muziekcentrum Dranouter y las incorporará a sus espectáculos.

2023.12.13

Muziekcentrum Dranouter (Heuvelland)

2023.12.14

Merode Kerkconcerten (Langdorp)

2023.12.15

Muziekclub t' Ey (Sint-Niklaas)



Flenbasque Chamber Music Exchange

2024.03 - 2024.04.22

Ensemble Kuraia Zvezdoliki Ensemble Etxepare Euskal Institutua

Euskadin eta Flandrian egiten den musika garaikidea eta abangoardiako sorkuntza deskubritzeko aukera eskainiko du Ensemble Kuraia eta Zvedoliki Ensemble-ren ‘Flenbasque Chamber Music Exchange’ egitasmoak. Euskadiko eta Flandriako konpositoreek haien lanak aurkeztuko dituzte bestearen eskualdean. Gainera, proiektu honek lankidetza egonkorra izateko esparrua ezarri eta bi lurraldleen artean musika-zirkuitu bat sortu nahi ditu.

El proyecto “Flenbasque Chamber Music Exchange” de Ensemble Kuraia y Zvedoliki Ensemble ofrece la oportunidad de descubrir la música contemporánea y la creación de vanguardia que se realiza en Euskadi y Flandes. Los/las compositores/as de Euskadi y Flandes presentarán sus obras en el territorio del otro. Además, este proyecto pretende establecer un marco de colaboración estable en el tiempo y crear un circuito musical entre ambos territorios.

2024.03

Zvezdoliki Ensemble

‘Musika Garaikideko 30. Topaketa’ / ‘30º Encuentro de Música Contemporánea’
J.C. Arriaga Kontserbatorioa (Bilbo)

2024.04.21-22

Kuraia Ensemble

Muziekcentrum De Bijloke (Gent)

A FILM BY FERMIN MUGURUZA REN FILM BAT

MARIA CRUICKSHANK ITZIAR ITUÑO MANEX FUCHS ANTONIO DE LA TORRE ARIADNA GIL DARKO PERIC ENEKO SAGARDYOY



BLACK IS BETZA

AJINHOA

ARMED GUERRILLA: IMANOL ZINKUNEGI. ARMED GUERRILLA: BENÍT BERTA. ARMED GUERRILLA: DANI AZPITARTE. ARMED GUERRILLA: JONE UNAMUÑO. PRESIDENT OF THE REPUBLIC: JOSEPH HOMS. PRESIDENT OF THE REPUBLIC: AMÉ TRES VOLTES REBEL. DEFENDER: ÍÑAKI HOLGADO. DEFENDER: VÍCTOR SÁNCHEZ. MIKE ANTERO. DEFENDER: MATE ARROTA LAUREGI. DEFENDER: KEPA DE ORBE. DEFENDER: HUGO CASTRO. DEFENDER: MIREN BERRESATEGI. DIRECTOR: FERMIN MUGURUZA. HARKAITZ CANDO, ISA CAMPO. SCREENPLAY: FERMIN MUGURUZA.

Excluded from the European Union Program | INCAA | Espana | LAFCA | dca | ARALIZ | harkaitz | Gasteiz | Euskadi | 20TH CENTURY FOX | Reitmans | la gacine | TAKA

Euskal zinemari #Flenbasque leihoa

2024.02.28-29 / 2024.06.7-8

Anima Festival Cinema Nova Ander Iriarte Fermín Muguruza

Euskal zinemak ere bere lekua izan du Flandrian #FlenBasque konexioaren baitan. Alde batetik Ander Iriarte zinemagilearen "Europa" euskarazko laburmetraia Bruselan ospatzen den Anima Festibalean aukeratua izan da 2024ko edizioan. Urtero, Anima Festibala Brusela osoko 12 zinema arretotan aldi berean ospatzen da, 40.000 ikusleren aurrean. Ander Iriartek bertan aurkeztu ahal izan du bere lana.

Bestalde, ekainean, Bruselako Cinema Novak ziklo berezi bat eskaini zion Fermín Muguruza artistari. Zikloaren baitan "Black is Beltza" eta "Black is Beltza II: Ainhoa" animaziozko lanak eskaini ziren, eta baita "Bidasoa 2028-2023" dokumentala ere. Lan hauek aurkezteko Fermín Muguruza bera bertan izan zen.

El cine vasco también ha encontrado su espacio en Flandes como parte de la conexión #FlenBasque. Por un lado, el cortometraje vasco "Europa" del cineasta Ander Iriarte ha sido seleccionado para la edición 2024 del Anima Festival, celebrado en Bruselas. El Festival Anima se celebra cada año simultáneamente en 12 salas de Bruselas y presenta 250 películas ante 40.000 espectadores. El autor Ander Iriarte ha presentado la obra en Bruselas.

Por otro lado, en junio, Cinema Nova de Bruselas ofreció un ciclo especial al artista Fermín Muguruza. En el marco del ciclo se ofrecieron las obras de animación "Black is Black" y "Black is Black II: Ainhoa", además de presentar el documental "Bidasoa 2028-2023". El propio Fermín Muguruza estuvo allí para presentar las proyecciones.



© Michiel De Cleene

Hydra

2024.09.20 - 2024-10-2024

LLS Paleis | 019 Ghent | Ra Asensi | Inés García | Iván Gómez | María Goirigolzarri

'Hydra' erakusketa Ra Asensi, Inés García eta Iván Gómezek lanak bildu ditu Gante hiriko LLS Paleisen. Hiru artista horien erakusketa, tamaina handiko eta diziplina anitzeko instalazio gisa aurkezten da, eskultura, ikusizkoak eta audioak uztauztuz. María Goirigolzarri da 'Hydra' erakusketaren komisarioa, eta «itsas munstro polikefalo mitikoa» kontzeptu gisa hartuz, «uretan zirkulatutako gorputz bizi bat aurkezten duen» proposamena aurkezten du. Konexioei eta desberdintasunei buruzko gogoetara gomita luzatuz.

Erakusketak tamaina handiko instalazio itxurako pieza nagusi bat du, artista bakoitzaren lanaren testura, material, irudi eta teknologia propioak biltzen dituena. Horrela, Ra Asensik 'Segunda piel para Hydra' lana biltzen du, eskulturaren, soinuaren eta elektronikaren artean koka daitekeen lana.

Bestalde, Inés Garcíak 'Río' film labur experimentala ere ikus daiteke, zuri-beltzean eta Super 8an filmatuta, urak ibilgu batean duen isuria erakusteko. Iván Gómezek azkenik, 'Vitruvioren lorategia' lana sortu du, erakusketan barrena aurrera egin ahala «ureztatuz, elikatuz eta mutatuz» doan eskultura.

La exposición 'Hydra' ha reunido el trabajo de Ra Asensi, Inés García e Iván Gómez. La muestra de estos tres artistas se despliega como una instalación de gran tamaño y de carácter multidisciplinar que combina escultura, visuales y audio. Comisariada por María Goirigolzarri, 'Hydra' bebe conceptualmente del «mítico monstruo marino policéfalo» y se despliega como una obra que «presenta un cuerpo vivo y circulado por el agua» que invita a la reflexión sobre las conexiones y las diferencias.

Los tres artistas vascos han aportado sus creaciones al conjunto, que cuenta con una pieza central en forma de instalación de gran tamaño que acoge «texturas, materiales, imágenes y tecnologías propias» del trabajo de cada artista. De esta manera, Ra Asensi presenta 'Segunda piel para Hydra', una pieza «a caballo entre lo escultórico, lo sonoro y lo electrónico» formada por una plancha de acero corten.

Por su parte, Inés García aporta 'Río', un cortometraje experimental en blanco y negro y filmado en Super 8 que muestra el fluir del agua en un cauce. Por último, Iván Gómez expone 'El jardín de Vitruvio', una escultura «que se va regando, nutriendo y mutando» a medida que la exposición avanza.



A VERA MITA EST MARIA

'Euskal Herria eta Flandria artean' Kongresua. 'El Atlántico nos une'

2024.10.17-18

M Museun (Leuven) | Katholieke Universiteit Leuven

Flandriako eta Euskal Herriko arte langintzak Erdi Arotik gure egunetaraino izan duen harremana aztertzeko kongresua antolatu da #FlenBasque konexioaren baitan.

Artea ezagutzea da gure historia kulturala ezagutzeko biderik zuzenena, arteak, beste edozein giza adierazpenek baino hobe adierazten duelako kultura baten pentsamendua. Euskal ondare artistikoari erreparatzen badiogu, Flandriak gure historian utzi duen aztarnaz ohar gaitezke. Izan ere, gure historiaren zati bat partekatu dugu, espazio bat partekatu dugulako: Atlantikoa. Artelanek ur horietan zehar bidaia zuten mendeetan eta, artearekin batera, merkantziak, ideiak, hizkuntzak, pertsonak eta kulturak ere bidaia zuten. Hori dela eta, Atlantikoak bustitzen dituen kostaldeek ur bera duten beste kostalde batzuetara begiratu izan dute beti, ur beraren inguruan beste komunitate eta gizatalde batzuk eratzen direlako. Lovainako M Museum-ean antolatutako jardunaldi hauetan artearen historialariak eta artistak bildu ditugu helburu batekin: azaldu dezaten artea dela Euskal Herriko eta Flandriako nortasun historikoaren ispilua.

Un congreso en el marco de la conexión #FlenBasque examinará la relación en torno al arte entre Flandes y el País Vasco desde la Edad Media hasta la actualidad.

Acercarse al arte es la forma más directa de conocer nuestra historia en el ámbito de la cultura. El arte es una de las expresiones humanas más idóneas para reflejar el pensamiento de una cultura. Si nos fijamos en el patrimonio artístico vasco, percibimos la huella que ha dejado Flandes en nuestra historia. De hecho, hemos compartido una parte de nuestra historia, porque hemos compartido un espacio: el Atlántico. Las obras de arte viajaron por estas aguas durante siglos y, junto con el arte, también lo hicieron bienes, ideas, lenguas, personas y culturas. Por ello, las costas bañadas por el Atlántico siempre han mirado a otras costas con la misma agua, porque alrededor de la misma agua se forman otras comunidades y grupos humanos. En el Museo M de Lovaina reunimos a historiadores del arte y artistas con un objetivo: explicar cómo el arte es el espejo que refleja las identidades históricas del País Vasco y Flandes.

VLAANDEREN
BASKENLAND



Flanders
State of the Art

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



**BASQUE
CULTURE.EUS**